

TOKI ADMINISTRAZIOA

3

ADMINISTRACIÓN LOCAL

DONOSTIA KULTURA
ENPRESA ERAKUNDE PUBLIKOA

Iragarkia

2024ko ekainaren 19an Donostia Kultura Enpresa Erakunde Publikoko Administrazio Kontseiluak erabaki hauek hartu zituen:

Donostia Kultura Enpresa Erakunde Publikoaren Administrazio Kontseiluari:

Donostia Kultura Enpresa Erakunde Publikoan lan-kontratudun finko izateko hautapen prozesuak arautuko dituzten oinarri orokorrak Entitatearen Administrazio Kontseiluak 2023ko apirilaren 21ean onartu zituen, eta Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratu ziren, 2023 maiatzaren 18an, aldizkariaren 95. zk.n.

Oinarri Orokorrak onartu zirenetik egon diren arau-aldaketak kontuan hartuta, hala nola, araudi laboralaren arloan interpretazio judizialen eboluzioa ikusita, enplegu publiko finkora sartzeko hautaketa-prozesu horiei guztiei ahalik eta berme handienarekin aurre egiteko, zuzendari kudeatzaile honek, Erakundearen estatutuen 14.1.i) artikuluan xedatutakoaren arabera, Oinarri Orokorraren zenbait alderdi aldatzea proposatu du. Era berean, komeni da aldaketa baliatzea zenbait aurreikuspen argitzeko; izan ere, batzuetan aldatuko diren aurreikuspen horiek aplikatzean interpretazio-arazoak sortu dira edo sortu ahal direla aurreikusi ahal dira.

Oinarri orokorrak langileen ordezkariekin negoziazio objektu izan dira, eta horren berri espedientean jaso da.

Erakundeko 14.1.i) artikulua ezarritakoari jarriaki, Administrazio Kontseiluaren eskumena da hautaproba deialdien oinarriak onartzea, eta, ondorioz, baita horien aldaketak onartzea ere.

Horregatik guztiagatik, 2023ko uztailaren 27an Presidentziak emandako ebazpenaren bitartez eman zaizkidan eskumenak erabiliz, Donostia Kultura Enpresa Erakunde Publikoaren Administrazio Kontseiluari proposatzen diot erabaki hau hartzea:

ERABAKIA

Lehen. Oinarri Orokorrak jarraian adierazten den moduan aldatzea, Administrazio Kontseiluak 2023ko apirilaren 21ean onartu zituenak eta Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN aldizkariaren 95 zk.n 2023ko maiatzaren 18an argitaratu zirenak. Oinarri Orokorrak, Donostia Kultura Enpresa Erakunde Publikoan lan-kontratudun finko izateko hautapen prozesuen baldintza orokorrak arautzen dituzte:

— Bostgarren paragrafoa, 8.1.1. Oinarri orokorrarena. Proben deialdia: Honako testua gehitzen da: «Edonola ere, eta aurrekoaren kalterik gabe, Euskal Sektore Publikoan Euskararen Erabilera Normalizatzeko otsailaren 22ko 19/2024 Dekretuaren 39. artikuluan adierazitakoaren arabera, euskara jakitea nahitaezkoa den lanpostuetara sartzeko probak egitea aurreikusten duten hautaketa- edo hornikuntza-prozesuetan, deialdi bakoitzeko oinarri espezifikoetan adierazi ahal izango da proba edo probaren zatiren bat nahitaez hizkuntza horretan egitea».

ENTIDAD PÚBLICA EMPRESARIAL
DONOSTIA KULTURA

Anuncio

El Consejo de Administración de la Entidad Pública Empresarial Donostia Kultura, con fecha 19 de junio de 2024 adoptó los siguientes acuerdos:

Al Consejo de Administración de la Entidad Pública Empresarial Donostia Kultura:

Las Bases Generales que vienen regulando los procesos selectivos para el acceso a la condición de personal laboral fijo en la Entidad Pública Empresarial Donostia Kultura fueron aprobadas por acuerdo de su Consejo de Administración de fecha 21 de abril de 2023 y publicadas en el BOLETÍN OFICIAL de Gipuzkoa, n.º 95, de fecha 18 de mayo de 2023.

Teniendo en cuenta los cambios ocurridos en la normativa desde la aprobación de las Bases Generales, así como de la evolución de las diversas interpretaciones judiciales en el ámbito laboral, con el objeto de afrontar todos estos procesos selectivos de acceso al empleo público fijo con la mayor garantía, este Director-Gerente, conforme a lo dispuesto en el artículo 14.1.i) de los estatutos del Ente, ha propuesto modificar algunos aspectos de las citadas bases. Asimismo, interesa también aprovechar la modificación para aclarar algunas previsiones que, a veces, han generado o se prevé puedan generar, problemas interpretativos en su aplicación.

La modificación de las Bases Generales ha sido objeto de negociación con la representación del personal, de lo cual queda constancia en el correspondiente expediente.

De conformidad con el contenido del artículo 14.1.i) de los estatutos del Ente, es competencia del Consejo de Administración la aprobación de las bases de las convocatorias de selección, por lo que también es competente para modificarlas.

Por todo ello, en virtud de las atribuciones que me fueron conferidas por la Resolución de la Presidencia de 27 de julio de 2023, propongo al Consejo de Administración de la Entidad Pública Empresarial Donostia Kultura que adopte el siguiente

ACUERDO

Primero. Aprobar la modificación de las Bases Generales aprobadas por el Consejo de Administración de fecha 21 de abril de 2023 y publicadas en el BOLETÍN OFICIAL de Gipuzkoa, n.º 95, de fecha 18 de mayo de 2023, reguladoras de los aspectos generales de los procesos selectivos para el acceso a la condición de personal laboral fijo en la Entidad Pública Empresarial Donostia Kultura, en los términos que se indican a continuación:

— Párrafo quinto de la Base General 8.1.1. Convocatoria de las pruebas. Se añade el siguiente texto: «No obstante, y sin perjuicio de lo anterior, de acuerdo a lo señalado por el artículo 39 del Decreto 19/2024, de 22 de febrero, de normalización del uso del euskera en el Sector Público Vasco, en los procesos selectivos o de provisión en los que se prevea la realización de pruebas para el acceso a puestos de trabajo en los cuales el conocimiento del euskera sea preceptivo, las Bases Específicas de cada convocatoria podrán determinar la realización obligatoria de la prueba, o alguna parte de ella, en dicho idioma.»

— Bigarren paragrafoa, 8.3.3.c) Oinarri Orokorrena. Hizkuntzak. Paragrafoaren amaiera puntua ezabatu eta honako testua gehitzen da: «, edo Euskal Autonomia Erkidegoko administrazio orokorreko eta haren erakunde autonomoetako lanpostuen hautatze- eta hornitze-prozesuetan hizkuntza-titulu eta -ziurtagi-rien baliokidetzari buruzko ekainaren 30eko 117/2015 Dekretuaren eranskinean jasotakoak.»

— 10.1.3. Oinarri Orokorra aldatzen da. Azken kalifikazioak, lehenetasun hurrenkera eta eskainitako lanpostuak argitaratzea. Horrela idatzita geratuko da:

«Behin Epaimahai Kalifikatzaileak azken kalifikazioak eta horien ondoriozko lehenetasun-ordena zehaztu ondoren, udal-organo eskudunari helaraziko dizkio. Organo horrek, epaimahaiak jasotakoari erabat lotuta, ebazpena emango du, eta, horren bidez, azken kalifikazioak jasotzen dituzten zerrendak argitaratzeko aginduko du, deitutako lanpostuen hizkuntza-eskakizunaren eta deitutako lanpostuen gainerako betekizun espezifikoaren arabera. Azken kalifikazioekin batera, lehiaketa-fasean baloratu den izangai bakoitzari dagokion lehenetasun-ordena argitaratuko da, bai eta eskainitako lanpostuen zerrenda ere, zerrenda hori aurretik argitaratu bada ere».

— Lehen paragrafoa, Hamabosgarren Oinarri Orokorrena. Lan Poltsa. Honako testua gehitzen da: «Aurrekoaren kalterik gabe, deialdi bakoitzaren oinarri espezifikoek lan-poltsak sortzetik salbuetsi ahal izango dute».

Bigarrena. Akordio hau Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN OSORIK argitaratzea.

Hirugarrena. Erabaki honen bitartez onartutako Oinarri Orokorretako aldaketak Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratu eta biharamunetik aurrera aplikatuko direla ezartzea.

Aldaketek ez dute eraginik izango deialdia eginda duten hautaketa prozesuetan. Hortaz, deialdi horiek Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratu ziren unean indarrean zeuden oinarri orokorren arabera arautuko dira.

Laugarrena. Ahalmena ematea Donostia Kulturako zuzendari kudeatzaileari aurreko akordioak gauzatzeko eta formalizatzeko egin behar diren dokumentu publiko eta/edo pribatu guztiak emateko, baita zuzentzeko ere, ahalik eta modurik zabalean.

Donostia, 2024ko ekainaren 20a.—Rebeka Gallastegi Etxezarreta, Administrazio eta Baliabideen Kudeaketa Sailaren zuzendari teknikoa. (4650)

— Párrafo segundo de la Base General 8.3.3.c) Idiomas. Se elimina el punto final del párrafo y se añade el siguiente texto: «, o en el anexo del Decreto 117/2015, de 30 de junio, de equivalencia de títulos y certificados de idiomas en los procesos de selección y provisión de puestos de trabajo de la Administración General de la Comunidad Autónoma del País Vasco y sus Organismos Autónomos.»

— Se modifica la Base General 10.1.3. Publicación de calificaciones finales, orden de prelación y puestos ofertados. Su redacción queda como sigue:

«Una vez que el Tribunal Calificador haya determinado las calificaciones finales y el orden de prelación derivado de las mismas, las elevará al órgano competente. Dicho órgano, con vinculación plena a lo elevado por el Tribunal, emitirá una resolución mediante la que ordenará la publicación de las relaciones que contengan las calificaciones finales atendiendo al perfil lingüístico de las plazas convocadas y al resto de requisitos específicos de los puestos convocados. Junto con las calificaciones finales se publicará el orden de prelación que le corresponde a cada aspirante que ha sido valorado en la fase de concurso, así como la relación de puestos ofertados, incluso en el supuesto de que ésta relación ya se hubiese publicado con anterioridad».

— Párrafo primero de la Base General Decimoquinta Bolsa de trabajo. Se añade el siguiente texto: «Sin perjuicio de lo anterior, las bases específicas de cada convocatoria podrán excepcionar la creación de bolsas de trabajo».

Segundo. Publicar el presente acuerdo en el BOLETÍN OFICIAL de Gipuzkoa en su integridad.

Tercero. Establecer que las modificaciones de las Bases Generales aprobadas en virtud del presente acuerdo resultarán de aplicación desde el día siguiente al de su publicación en el BOLETÍN OFICIAL de Gipuzkoa.

Las modificaciones no afectarán a los procesos ya convocados, que se regirán por las Bases Generales en vigor en el momento de la publicación de sus respectivas convocatorias en el BOLETÍN OFICIAL de Gipuzkoa.

Cuarto. Facultar al Director-Gerente de Donostia Kultura para otorgar cuantos documentos, públicos y/o privados, incluso de subsanación o rectificación, en sus términos más amplios, sean necesarios para ejecutar y formalizar los precedentes acuerdos.

San Sebastián, a 20 de junio de 2024.—La directora-técnica del Área de Administración y Gestión de Recursos, Rebeka Gallastegi Etxezarreta. (4650)